



# Aurkezpena


Erakundeok egin behar ditugun lan ugarien artetik badira batzuk bereziki atsegingarriak gertatzen direnak, eskubide unibertsalak zaintzarekin zerikusi zuzena dutela-eta. Bada, lan horietako bat da, hain zuzen ere, gure sailaren izate-arrazoia: gizakion ongizatearen ardatzetako bat zaintzea eta “eraikitzea”, osasuna alegia, bai norbanakoaren ondasun modura, bai gizartearen ondare erkide modura.

Norabidea hori izanik, euskal administrazioek aspaldidanik dihardute lanean bizimodu, balio eta ohitura osasungarriak sustatzen, adikzioei aurrea hartzen, adikzio-arriskuak murrizten eta adikzioen bat dutenak artatzen. Hainbat drogamendekotasun-plan egon da jarraian, baina guztien abiaburua 1982an aurkituko dugu, urte hartan aurkeztu baitzen “Drogamendekotasunen arloan jarduteko lehenengo plana”. Harrezkero, udalek, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak geroz eta aurrerago egin dute norbanakoaren eta guztion osasuna zaintzeko eta eraikitzeko bidean, bakoitzak bere plan, programa eta jarduerak erabiliz, hainbat izan baita segidan. Eta ezin aipatu gabe utzi denbora horretan guztian zer-nolako lana egin duten hainbat euskal entitatek droga-mendekotasunari aurrea hartzen eta droga-mendekoei laguntzen.

Batera egiten ari garen bide horretan, bada mugarri garrantzitsu bat, 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, 2016an onartua. Gure arauak berraztertzeko eta gaur egungo errealitateetara egokitzeko beta eman zigun, hartara, erantzun egokia eta efektiboa ematen jarraitzeko bai adikzioei -osotasunean harturik- bai adikzioek hainbeste jenderen artean sortzen dituzten arazoei. Osasun publikoaren ikuspuntutik dago egina, adikzioak osotasunean hartuz eta “Osasuna Politika Guztietan” paradigma erabiliz oinarri modura; hau da, arlo arteko ekintza efektibo eta iraunkorraren aldeko apustu eginez administrazioaren maila guztietan.

Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Plana beste aurrerapauso bat da. Helburua ezaguna da: begiratu bat ematea ea zer programa eta esku-hartze daukagun osasuna sustatzeko, adikzioei aurre hartzeko, eskaintza murrizteko, laguntza emateko eta adikzioen pean direnak gizarteratzeko; eta denak hobeto planifikatu, ordenatu eta koordinatzea, betiere euskal administrazio publikoen beste plan eta estrategia batzuekin koordinaturik. Azken batean, orokorrean osasunarekin zerikusia duten jarrerak dira gure jo-puntua; baina ez, soilik, norbanakoa artatzeko neurriak erabiliz, baita ingurune osasungarriak sortzeko ahaleginak eginez eta faktore egiturazkoetan eragiten: gizartean, ekonomian eta politikan.

Plana, gainera, bost atal nagusitan banaturik dagoenez, aukera polita da gure ekintza zuzentzen duten kontzeptu eta printzipioei errepasso bat emateko, eta ikuspegi orokor bat izateko ea adikzioak zertan diren Euskadin. Planaren muina osatzen duten lehentasunezko ardatzak, helburuak eta jardun-ildoak ere badakartza, ezarpenerako eta jarraipenerako mekanismoarekin batera. Badugu, hortaz, datozen urteetarako ibilbide-orria, zuzen-zuzen definiturik. Jarrai dezagun aurrera, "Arriskuei aurre eginez, Osasuna eraikiz".

A handwritten signature in blue ink, consisting of a stylized 'J' followed by a dash and 'PS', enclosed within a blue triangular shape pointing to the right.

**Jon Darpón Sierra**  
*Osasun sailburua*